

GIZA BALIABIDEEN ARDURADUN LANPOSTUA BETETZEKO DEIALDIAREKIKO LEHENENGO ARIKETAKO EMAITZEI BURUZKO ERREKLAMAZIO EBAZPENEN AKTA.

Oiartzunen, bi mila eta hemeretziko martxoaren hogeita bian, ostirala, goizeko hamarretan, Udal honen langile saileko *giza baliabideen arduradun lanpostua* betetzeko Oiartzungo Udalak deituriko lehiaketa-oposaketa irekiko probak neurtzeko eratzen den Epaimahaiaren ondorengo kideak bildu dira:

Mahaiburua:

- *Maria Victoria Joaristi Olariaga andrea, Udal Idazkaria.*

Mahaikideak:

—*Maria Jesús Otaegi Irureta andrea, Oiartzungo Udal Kontuhartzailea.*

—*Pilar Alcorta Iruretagoyena andrea. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) izendaturik.*

—*Jon Zarandona Borreguero jauna, Irungo Udalaren Giza Baliabideetako eta Zerbitzu Orokorretako Burua.*

—*Elixabete Jauregi Imaz andrea. Oiartzungo Udalaren karrerako funtzionarioak.*

Idazkaria:

— *Titularra: José Manuel Aduriz Cazabon, Oiartzungo Udalaren Langileria Arduraduna.*

Beraz Epaimahai Kalifikatzailearen kide guztiak bertan aurkitzen direnez gero, Epaimahaia eraturik geratu da lehen aipatutako egun, leku eta orduan, honakoa erabakiz aho batez:

LEHENA.- Lehenengo ariketa zuzendu eta emaitzak argitaratuta gero erreklamazioetarako jarritako epearen barruan aurkeztu direnak ebaztea, ondorengo zehaztapenekin:

1.- **Erreklamazioa: Amaia Abendaño** (01454 sarrera).

- 12. galderari:

Edukia: Autonomia Estatutuaren 10,8 artikulua 149,1,23 dio eta azterketan 149,1,25 esaten du.

Erantzuna: akats bat da eta ondorioz **PARTZIALKI ONARTU EGITEN DA**. Ondorioz, erreserbako 51.aren zuzenketari ekin zaio.

- 31. galderari:

Edukia: c) aukera da okerra azterketak dokumentuak aurkezteko aukera posta-bulegoetan aipatzen duenean ez duelako 39/2015 Legeak ematen duen erantzun osoa jasotzen (“erregelamenduz ezartzen den moduan”).

Erantzuna: Prozedurari buruzko 39/2015 Legeak c) atalean “Espainiak atzerrian dituen” dio eta azterketak c) atalean zioen “Espainian dauden atzerriko ...”. Beraz, hori zen erantzun okerra, eskatzen zen bezala eta zuzendu den bezala. **EZIN DA BERAZ ONARTU ERREKLAMAZIOA** atal honetan.

- 47. galderari.

Edukia: Ordenantza Fiskalen aurka zer egin litekeen galdetuta, azterketako d) atalekoa zuzena dela dio (“auzibidera jo behar da”).

Erantzuna: hori zuzena izanik ere, b) atalekoa (ontzat eman duguna) askoz ere zuzenagoa eta espezifikagoa da: “administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke”. Horrezaz gain, d) atalekoa aginduzko estiloan egina da eta horretan ere b) atalekoa zuzenagoa da errekurtsua jartzeko aukera dagoelako ez betebeharra. Beraz, azterketa hasi aurretik argitzen den bezala erantzun zuzenena bilatzen denez **EZIN DA ERREKLAMAZIOA ONARTU**.

- 22. galderari.

Edukia: Aurrekontu bakarra eduki behar dela ekonomia-urtealdian da erantzun zuzena eta planteatzen du gai hori LBRLko VIII. Tituluan dagoela eta ez dagoela gaitegian.

Erantzuna: gaitegian dago baina espezifikoa eta azterketa hau gaitegi orokorrarena zen. **ONARTU EGITEN DA**, erreserbako 52. galdera zuzentzeari ekinez.

2. **Erreklamazioa: Laura Alvarez** (01467 sarrera).

Edukia: 27. galderari dagokio eta bi gai planteatzen ditu. Lehenik, galderak 39/2015 Legearen 25 galderaren ingurukoa dela argitu ondoren ofizioz hasitako espedientetan ebazpen espresuaren inguruko aukerak ematen ditu, eta erreklamazioak dio aipatu artikulua ez duela hori xedatzen, ofizioz hasitako prozeduretan ebazpen espresurik ez izatearen ondorioak baizik, eta horregatik nahasketa eragiten duela.

Bigarrenik, okerreko erantzuna eskatzen zenez, b) atalean emandakoa ez omen da zuzena, legeak jasotzen duen azken esaldia ez delako bertan adierazten. Erantzunak dio “.... Kasu horietan prozedura iraungi dela adierazten duen ebazpenak jarduketak artxibatzeko aginduko du”. Eta legeak esaldi horren bukaeran gehitzen du “95. artikulak aurreikusitako ondorioekin”.

Erantzuna: lehenengo ataleko eskaerari ezin zaio aldeko iritzirik eman ez dagoelako kontraesanik galderaren formulazioan. Azken batean azterketaren galderan legea eta artikulua aipatzea lagungarri moduan egiten da, besterik gabe, eta hautagaiak galdetutakoari erantzun behar dio.

Bigarren eskaerak ere erantzun berdina du. Galdera horretan okerreko erantzun nabarmena a) atalekoa da (“ofizioz hasitako prozeduretan, gehieneko epean ebazpen espresua eman eta jakinarazi ez izateak ebazteko betebeharrak legezkotik salbuesten du Administrazioa”), legeak argi eta garbi diolako EZ DUELA SALBUESTEN. Beraz, galdera ondo erantzuteko legeak ematen duen formulazioa oso osorik errepikatu beharko dela inoiz planteatu ez denez, erreklamazioaileak ez du arrazoi.

Ondorioz, erreklamazioa hau **EZ ONARTZEA ERABAKI DA**.

2.- Onartutako erreklamazioen ondoren 12. eta 22. galderen ordean 51 eta 52 zuzendu dira eta honakoak dira behin betiko emaitzak:

N.A. zk.	isilpeko zk.	puntuazioa
72502551L	18	8,65
72525057P	8	4,90
45195541N	9	3,60
44567303L	16	8,35
72489066N	13	4,95
44567568P	5	5,45
44344035N	14	5,50
72541507J	6	7,25
44140107W	3	7,25
44563348C	10	6,35
45194604H	11	6,90
30683197R	12	8,55
44141401P	1	1,80
72477301T	17	4,25
15391909X	7	8,35
44158757E	15	7,50
44551916L	19	6,40
44553525H	4	7,25
44131472S	2	7,50

Horren ondorioz suertaturiko behin betiko emaitzak onartzen dira eta web orrian argitaratzea.

Egintza honen inpugnazioa egin daiteke, deialdia arautzen duten oinarrien hamahirugarrenean ezarritakoaren arabera.

BIGARRENA.- HURRENGO PROBARAKO DEIA: BIGARREN ARIKETARI DAGOKIONA (Euskarakoa):

Hizkuntza eskakizuna egiaztatu behar duten izangaiei deia egiten zaie apirilaren lehenengo hambostaldirako, IVAP-en Gipuzkoako deialdi bateratura, Aurrerago adieraziko dira, eguna, lekua eta ordua.

Eta hau besterik ez zelarik bilkura honen xedea egintza amaitutzat eman da goizeko hamar t'erdietan, Akta hau idatz dadin xedaturik, hori guztia ziurtatzen dudalarik.